



**Herriko
atletek
irabazi zuten
Lasarte-Oria
Bai! Krosa
elbarrien
mailan izan
ezik**



Irati Bergara herritarrek Mexikoko hiriburuan eta inguruko herritan kokatu zuen diaporamaren kontakizuna.

Mexikon barrena

Asteazkenean eman zitzaion hasiera Bidaien Diaporamen zikloari Jalgi kafe-antzokian

Urtero bezala Ttakun Kultur Elkarteak Bidaietako Diaporamen zikloa antolatu du. Asteazkenean Irati Bergara herritarra izan zen zikloari hasiera eman ziona Mexikoko hiriburua eta inguruko herrien gora behar kontaktuz.

Datorren asteazkenean Naïke Zumeta izango da hizlari eta Bulgariara eginiko bidaia kontatuko du. •

Nahi eta ezin

Ostiral iluntzean Jalgi kafe-antzokian *Mortimer* antzezlanaren eskaini zuen Kukubiltxo taldeak, clown formatuan. Antzerkia, akrobaziak eta hainbat sorpresa ikusi ziren.

Jende ugari bildu zen antzerkia ikusteko asmoz eta inor ere ez zen berdín geratu, denei sorrarazi zien zerbait barruan, izan ere, gai asko eta delikatuak jorratu zituen antzerkian. Mortimerrek neskalaguna galdu zuen istripu batean, eta berarekin joatea erabaki zuen, bere buruaz beste eginez. Oso konbentziturata egon arren eta ahalegin asko egin arren, azkeneko momentuan ezin... •



Hainbat ezusteko eman zituen Mortimerrek Jalgin ostiralean.

GIZARTEA/ 3

**Illarraltzuetako
hilerrira jende
ugari hurbildu zen**

AISIA/ 3

**Amaraun
klubekoek
Halloween festa
ospatuko dute**

KULTURA/ 4

**Giro ederra
Zubietan
Kukukaren aldeko
eginiko jaialdian**

ZORIONAK PARTE HARTZEAGATIK!



Lasarte-Oria Bai!



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Neure kabuz



Izena / Izana

Gaurkoan opari bat egin nahiko nuke. Nire izena oparitu nahiko nuke. Izena. Txiki txikitatik, baten baten ahotik entzunda nor garen adierazten diguna. Izaera, arima ala ego deituriko barneko ni bat badugula erakusten diguna. Batzuetan gure buruarekin identifikatzen laguntzen diguna, eta besteetan, ordea, arrotz sentiarazten.

Izakia gizaki bihurtzeko beharrezko etiketa. Gorpuzte fisiko eta konexio biologiko oro gauzatzea baina garrantzia handiakoduna; izena jarri behar duen askoren ustez, behinik behin. Izena. Izana.

Eder, agian? Iraultzaile edo tradizional? Inspirazio, akaso? Kate?

Nik ere, Bilboko karrikan bere izena ikusi nahi ez zuen haren moduan, nire izena nire izana dela pentsatzen dut, eta eznaizela ezer ezpada nire izena. Etiketa soil bat bada ere, nire sentitzen dut, sekula izandako opari berezieta, honekin batera hazi eta hezia izan bainaiz. Maite dut nire izena, indibidualtasun bat, intimitasun bat eskaintzen baitit, gainontzeko pertsona guztiei bezala, beste inoren gaindi ala menpe egon beharrik gabe.

Daukadan kuttuneta eman nahiko nuke opari, beraz, esker on osoz. Inguuruan, nire moduan, beren izena maite duten guzti-guztientzat. Orokotasunean ere, pertsonak bereziak direla sentitzen duten guztientzat. Izana duen ororentzat. Eta zuretzat. Berezik zuretzat.

Taxio Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Belén

Zorionak zure urtebetetze egunean Joseba eta Eiderren partetik.



Malen

Zorionak Malen, Txokomarrubizko 4 muxu zure urtebetetze egunean. Ondo pasa!



Aitor

Zorionak Aitor! 10 muxu handi zure arreba Eider eta famili guztiaren partetik!



Iñaki

Zorionak txapeldun! Familiaren partetik ondo pasa zure egunean.



Enara

Ilehoritxo, zorionak June eta gurasoen partetik.



Olaty

Zorionak, zure 18. urtebetetzeagatik!!! Kuadrilla Txiki.



Estitxu

Zorionak! Ondo pasa eta azkar sendatu gurekin jolasteko. Muxu potoloa. Julen eta Xabat.



Juankar

40 urte eta bezain gazte! Zorionak osaba. Zure ilobak Jon eta Julen



Jose Ignacio

Zorionak txapeldun! Ondo pasa zure egunean familiaren partetik.



Maite eta Manolo
Zorionak bikote eta ondo pasa! Semearen partetik, bazkaria zuen kontu!

<p>Jaiotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Anartz Oyaga Bizarro, azaroaren 2an Lua Ferrera Miguel, urriaren 30ean 	<p>Heriotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ruben Montejo Diaz, azaroaren 1ean 39 urte zituela. Antonio Gonzalez Pozas, urriaren 30ean 85 urte zituela.
--	--

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 904 130.

Lan-eskaintzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauetarako. Harremanetarako telefonoa: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

• Ile-apaintzailea behar da Lasarte-Oriako ileapaindegi batean. Harremanetarako zenbakia, 629 482 335.

Lan-eskariak

• Andre euskalduna eskeintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa, 618 097 676.

• Lasarte-Oriako neska gaztea eskeintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Neska arduratsua eta esperientzia duena eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko. Etxeko garbiketa ere egiteko prest. Harremanetarako telefonoa: 697 946 546.

• Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo base-ri batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4
txintxarri@txintxarri.info; www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 5

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 6

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 7

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 8

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 9

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 10

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Osteguna, 11

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chuela, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak/zerbitzuak ... 943 376180

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com. Txintxarrirek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Jende ugari hurbildu zen kanposantura astelehen goizean, eguraldia ateri zegoela ikusita.

Illarraltzueta kolorez beteta

Utzi gaituztenetaz gogoratzen gara adierazteko, lore sorta

Santu Guztien egunean bisita behartua da kanposantura. Horregatik, astelehenean, azaroaren 1a, jende ugari igaro zen Illarraltzueta kanposantutik.

Mendioker eta Santa Barbara mendien artean kokatutako leku lasai honetan

herritar eta bisitari ugari aurkitu genituen astelehenean, Santu Guztien egunean zehar.

Familiakide eta lagun hilobietan, haietaz oroitzen gara adierazteko lore sorta utzi zuten gehienek.

Euriaren mehatxua baldin bazegoen ere, goiza ateri

zegoen eta herritar ugari aprobetxatu zuen gurekin ez dauden horiei bisita egiteko. Eguna aurrera joan ahala eguraldiak txarrera egin eta euria agertu zen.

Kanposantua, jendez, kolorez eta lorez estalirik egon zen egun batez. •

PROSALUS

Afrikako egoera ezagutu dute ikasleek

Prosalus Gobernu Kanpoko Erakundeak Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleei hitzaldia eskaini zien atzo Manuel Lekuona kultur etxean.

Josean Etxeberria eta Gonzalo Aranguren erakundeko kideek, Lourdes Acevedo zinegotziaren laguntzaz, kontinente honek Milurtekoaren garapen helburuak betetzeko dituen erronkak azaldu zizkieten gazteei.

Hitzaldiaren ostean, Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko sailaren laguntzaz Prosalusek jarri duen *Afrika eta Milurtekoaren garapen helburuak* erakusketa ikusi zuten. Erakusketa hau, azaroaren 12ra arte egongo da Lasarte-Orian. •



Erakusketan zirela, ikasleek adi jarraitu zituzten Prosaluseko kideen azalpenak.

ZUHAITZ MOZTEA

Zumaburu parkeko pasabidea itxia

Gaur, ostirala, Iberdrola enpresak zuhaitz batzuk mozteko egingo dituen lanak direla eta, oinezkoiei itxita egongo da Zumaburu parkearen zati bat.

Lan hauek zarata ere eragingo dute, beraz, alkatetzak barkamena eskatu nahi du eremu horretan sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

Halloween festa Amaraun klub-ean

Amaraun klubak hamaiak sorpresa ditu aurten eta horietako bat, larunbata honetan izango da, Halloween festa.

2003, 2004 eta 2005 urteetan jaiotako Klubeko haurrak gonbidatuak daude larunbatean Amaraun Ludotekan egingo den festara.

Arratsaldeko 16:30ean hasi eta bi orduz gozatze eta beldurtzeko aukera paregabea izango dute guztiak egingo diren Halloweeneko tailerra eta ginkanarekin. Sor-

presa gozo bat ere izango dute festari amaiera emateko.

Doaneko ekintza da eta antolatzaileek aipatu digutenez, "nahi badute, esate baterako, sorginez, banpiroz edo monstroz mozarrotuak etorri daitezke".

Amaraun kluba

Doan egin daiteke haurra Amaraun klubeko bazkide eta klubak hilabetero antolatzen dituen ekintza berezietan, tailer edo festetan parte hartzeko aukera eskaintzen die haurrei.

Klubeko arduradunek azaldu digutenez izena ematen dutenei, "bazkide txartela etxera bidaliko zaie eta urtebetetze egunean gutun berezia dute".

Era berean, hiru hilabete behin, Klubak asteburu pasa bat antolatzen du.

Amaraun klubeko kide izan nahi duenak, larunbatean bertan Ludotekan izena emateko aukera du. Bestela, astean zehar Ludotekan edo Ttakuneko bulegoan egin daitezke bazkide. •



Tailer eta ginkana berezia izango dute haurrek Amaraun Klubeko Halloween festan.

Leire
Arrandegia

**KALITATEA
PREZIO JUSTUAN**

**JATEN DUGUNA
GARA!**

ORDUTEGIA
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astelehenean 09:00 etatik 14:00etara
Astearte eta ostiraletan arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era

**Nagusia 35
Lasarte-Oria
Tel.:943 371946**

Giro ederra Kukukaren alde

Mila ikusle bildu ziren Zubietan
Kukuka elkarte laguntzeko

Zubietako Frontoia jendez bete zen urriaren 30eko arratsaldean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Irrien Lagunak* saioa ikusteko. Baina larunbatekoa ez zen saio normala izan, pailazoez gain Lasarte-Oriako hainbat elkartetako kide dantzan ikusi genituen. Hau guztia helburu zehatz batekin, Kukuka Antzerki eta Dantza taldearen alde dirua eskuratzea.

TXINTXARRI

Umore onez eta dantza-ekin hasi zen Kukukaren aldeko Jaialdia. Porrotx eta Marimotots pailazoez publikoaren irriak bereganatu zituzten saioaren hasieratik.

Arratsaldeko 18:00ak ondo jota hasi zen emanaldia, jende ugari baitzegoen zain sartzeko eta umeak txintxo txintxo eta isil isilik egon ziren *Irrien Lagunak* saioaz disfrutatzen. Ez zen saio normala izan, ohikotasunetik urrundu eta pailazoen ikuski-zuna lasarteoriatarrei eskaini zioten. Porrotx eta Marimotots-ek herritarrei pasa zien protagonismoaren zati handi bat.

Herria Kukukarekin

Jalgune, Beltzak rugby taldea, Semblante Andaluz, Ttakun, Xumela, Sorgin Jaiak, Zabaleta eta Zubietako herritarrak Bertso-eskola... Elkarte ugari Kukukaren alde. *Irrien Lagunak* disko abestiak dantatu zituzten herriko talde hauek.

Pailazoez hain ezagun egin dituzten doinuak abestu eta dantatu zituzten. Aurpegi ezagunak, herrikoak, pailazoez batera publikoak disfrutaz. Oholtza jendez bete zen Antzerki eta Dantza eskolaren alde.

Omenaldirako lekua

Dantza eta kantuen artean, herriko pertsonai bat omenetzeko parada ere egon zen jaialdian. Alejandro Romo artista ezagunak jaso zuen Kukukaren aitortza, hainbeste urtetan atrezzoarekin eta beste hainbat lanetan laguntzeagatik. Oso pozik eta hunkituta jaso zuen Romok oroigarria eta aitortpena.

Indar handiko elkarte

Orain dela 8 urte Landaberi Antzerki eta Dantza eskola bezala sortu zena, aurrez izen propioa eta izaera juridikoa bereganatu du. Hortxe dugu Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren jaiotza.

Antzerkizale ugari dago herrian, eta beren talentua atera eta erakutsi dezaten elkarte aproposa dugu hau. Etxeko txikienetarik, helduak bitarte, denak daukate lekua Kukukan.

Diru laguntza apurrak badituzten arren, proiektuak hartu duen dimentsioa konstante hartuz beste diru sardiak bilatu behar izan dituzte, eta horren barruan kokatzen da larunbateko jaialdia. Porrotx eta Marimotots Kukukarekin daude, baita herriko elkarteak ere. Hori larunbatean izan zen partaidetza zabalean argi ikusi da. •



Jendez bete zen Zubietako frontoia. Helduak, gazteak, umeak... guztiak Kukukaren alde. Salgai jarritako 1.000 sarrerak agortu ziren.



Semblante Andaluzeko lagunek *Irrien Lagunak* diskoan pailazoez grabatutako *Abuela Maria Luisa* kanta dantatzu zuten Zubietan.



Kukukaren aldeko jaialdia arrakastatsua izan zen publiko eta ikuskizun aldetik. Lasarte-Oriako elkartasuna adierazi zien.

BERTAKO FABRIKAZIOA
Solomoa baratxuritan-Baserri pateak
Odolkia- Solomo ontzutua
Etxeko txorizoa
Txistorra
Basurde burua


Tripakiak- Saitxitxak
ZORIONAK KORRIKALARIE!

ADURIZ DE LASARTE S.A
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

ELETRIZITATEA
ARREGUI
KORRIKALARIEKIN BATERA!

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



Hurrengo orrialdeetan:

- **Lasarte-Oria Bai! XV.** Kroseko argazkiak, kronika, emaitzak eta irabazleen elkarrizketak
- **Elkarrizketa:** Joxepo Artola, DYA erakundeko lehendakaria
- **Kros Txikiaren X. edizioko** argazkiak

www.txintxarri.info
helbidean
lasterketako
argazkiak

www.ostadark.org
helbidean ere
kroseko emaitzak
izogaz dituzue



**ZORIONAK
KORRIKALARIEI!**

Etorri gurekin gosaltzera!

Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net



Lasarte-Oria Bai!



DENA BERTAN EGINA

**PASTELAK
OPILAK
PASTAK
OGIA
BONBOIAK
...**

Herriko atletak irabazle

XV. Lasarte-Oria Bai! herri krosa orain arteko jendetsuena izan da, 1.444 korrikalarirekin.

Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen herri krosaren hamabostgarren edizioa burutu zen, lehenengo igandean, urriaren 31n eta herriko korrikalariak izan ziren garaileak: David Martin gizonezkoetan 32:05 denborarekin, eta Pili Bodegas emakumezkoetan 38:09 denborarekin. Aulki gorpildunetan ez zuen herriko inork parte hartu eta lehenengo postua Oriora joan zen, Jose Antonio Iglesias iritsi zen aurrena, 30:14 denborarekin. Helduen lasterketaren ostean, 700 bat haurrek parte hartu zuten Kros txikiaren X. edizioan.

TXINTXARRI

Urtero legez, hilaren azken igandean Lasarte-Oriako herrian giro berezia egon da. Horren arrazoia nagusia jakina da, Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen Lasarte-Oria Bai! herri krosa eta Kros txikia.

Horregatik, lehenengo igandean, urriaren 31n, jende ugari zebilen herrian goiz goizetik eta jendez gainezka zegoen Michelin Kirol gunea.

Antolatzaileek kaleko hesiak jarri eta azken ukituak ematen ikusi genituen; korrikalariak, berriz, txipa hartu

eta batetik bestera, beroketak egiten.

Guztiak, 10:30etara hurbildu ahala, bere lekuetara jo zuten, korrikalarien kasuan, irteera puntura.

Puntu-puntuagurra dantzatu zieten Erketz taldekoek partaide guztiei.

Segidan, Lasarte-Oria Bai! Krosaren XV. Edizioari hasiera eman zitzaion gorpil-aulkiko partehartzaileen lasterketarekin. Minutu gutxi batzuren buruan, gainerako partaideak atera ziren.

Hasieratik buruan

Hasieratik David Martin herri-



XV. edizio honetako sailkapen desberdinetako podiuma. Aurten, gorpil-aulkiko partehartzaileak egon dira, berriro ere.

tarra jarri zen lasterketaren buru.

Bere atzetik Sergio Roman hernaniarrak tartea zabaldu zuen eta atzetik sei bat korrikalarik osatu zuten multzoa, baina ez ziren gai izan bigarren sailkatuarengana gerturatzeko.

Romanek ere ezin izan zuen David harrapatu eta irabazlearengandik 15 segundura iritsi zen helmugara.

Eta podiuma osatzeko, hirugarren postuan, Yeray Varela oñatiarra sailkatu zen, seiko multzo horretatik ihes egin ondoren.

Emakumezkoen lasterketari dagokionez, Pili Bodegas Lasarte-Orian bizi den Donostiarak garaipen erraza lortu zuen, 10.000 metroak 38:09 denboran bukatuz.

Helmuga puntuan bi minutu, 40:09, kendu zizkion Irungo Jaione Galdos bigarren sailkatuari. Eta hirugarren postuan Aitziber Ibarbia zizurkildarra sailkatu zen, 40:28ko denborarekin.

Beste bi mailatan ez bezala, elbarrien sailkapenean ez zen herritarrik egon, Jose Antonio Iglesias oriotarrak eskuratu zuen txapela. Honek ere garaipen erraza lortu zuen, 30:14 denbora egin eta bigarren sailkatua, Hilario

Olano bi minutura sartu zen.

Antolatzaileek azaldu digutenez, aurtengo edizioa orain arteko jendetsuena izan da, "1.550 korrikalarik eman dute izena; 1.444 atera dira irteera puntutik eta horietatik 1.434 iritsi dira helmuga puntura."

X. Kros txikia

Helduen krosa eta sari bana-keta amaitu ostean, X. Kros Txikiaren txanda izan zen.

Bost eta hamalau urte bitarteko 700 korrikalari gaitxo ibili ziren Geltoki eta Uistin kaleetan lasterka.

Ilusioz eta gogoz 100, 150, 400, 800 eta 1.200 metroko ibilbideak osatu zituzten.

Ahalegin eta indar guztiak jarri zituzten lasterketan. Batzuk erraz egin zuten ibilbidea, besteak nekez, negar eginez edo zapatila eskuan zutela; guztiak helmuga igaro eta domina eta edateko jogurta jaso zuten. •



Erketzeko dantzari eta musikariek agurra eskaini zieten korrikalari guztiei. Aurten, irteeran 1.444 korrikalari izan dira.

Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak

...
EGUNEKO MENUA

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA

ZORIONAK KORRIKALARIEI!

NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria




WIFI GUNEA

ERREKATXO
JATETXEA

Oria Etorbidea Ibalondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

XV. Lasarte-Oria Bai! herri krosetako eta kros txikiko argazki gehiago ikusi nahi izanez gero, www.txintxarri.info orrialdean aurkituko dituzue



Korrikalariak ibilbide osoan zehar ikusleen animoak izan zituzten.



Korrikalariet txipa hartu eta utzi behar zuten Michelingo kirol guneko frontoian.



Santos Uribe, 1 dortsala zeraman korrikalaria lasarteoriatarrek, aurten bere erritmora egin zuen lasterka.

Jose Antonio Iglesias/ Elbarrien mailako irabazlea

“Proba polita iruditzen zait”

Hirugarren aldiz irabazi du Jose Antonio Iglesias oriotarrak Lasarte-Oria Bai! Krosa elbarrien sailean. Asko prestatu ez badu ere, 30:14 denborekin sartu zen helmugara.

Nola prestatu duzu proba?

Aurten egia esan ez dut gehiegi landu, ez naiz ondo prestatuta etorri.

Abuztuan geldu egon nintzen aukiarekin arazoak izan nituelako. Irailean, oportetara joan nintzen, beraz, ezinezkoa egin zait Lasarte-Oria Bai! Krosera sasoi onean etortzea.

Ondo ibili banaiz ere, ibil-

bidean zehar nabaritu dut ez neukala ondo prestatuta.

Proba gogorra iruditzen zaizu?

Ez, oso ondo dago. Aldapa pare bat ditu hasieran nahiko gogorrak direnak, baina bestela ondo ibilbidea. Ez da gogorregia egia esan.

Gainera, aldapa hauek ondo etortzen dira abiadura hartzeko.

Proba hau ere Behobia-Donostia prestatzeko ondo etortzen da, bueno behintzat niri ondo etortzen zait.

Ez da lehenengo aldia parte

hartzten duzula eta irabazten duzula, ez?

Urte dezente daramat kros honetan parte hartzen, aurreko urtean ezin izan genuen korritu obrak zirela medio, baina bestela nire egutegian finkatuta daukat proba hau.

Gainera, ondo joaten zait Lasarte-Orian, eta honekin hirugarren aldia da garaipena eskuratzen dudana.

Zer moduz publikoarekin?

Oso ondo. Herri aktiboa da, eta ibilbide osoan zehar animatzen zaitu jendeak. Oso ondo tratatua sentitzen naiz, beraz oso gustura nator. •



Denbora polita egin zuen Iglesiasek aurtengo edizioako lasterketan.

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com

URPA
AUTOBUSAK



KROSAREKIN BAT EGINEZ!

Lasarte-Oria Bai!



Garaipena herrian geratu da

David Martin eta Pili Bodegas-ek eskuratu dute Lasarte-Oria Bai! Krosean Igo postua

David Martin/ Gizonezkoen mailako irabazlea

“Txipa aldatzen hasi behar dut”

Hirugarren aldiz eskuratu du David Martin korrikalari lasarteoriarrek Lasarte-Oria Bai! Krosean lehenengo postua. Proba hasieratik lasterketaren buruan jarri eta 32:05 denbora lortu zuen helmugara iritsi zenean.

Nola ikusi duzu zure burua proban zehar?

Iazko eta aurtengo markak berdintsuak dira, beraz sasoi berdinean nagoela esan nahi du. Aurten ez da Orkoien Andoni Etxeberria, aurreko urteko garailea, egon eta beraz nik lortu dut garaipena.

Zenbat urte daramazkizu lasterketan parte hartzen?

Hamalagarrena izan da aurtengoa. Guztietan parte hartu dut, lehenengoan izan ezik, soldaduskan nengoelako. Beraz, jada ibilbideko sakinak guztiak buruz dakizkit.

Motibazio berezia ematen al du herrian korritzea?

Bai, dudarik gabe. Hemengo ikusleek asko animatzen naute. Jende ugari ezagutzen nau, familia, lagunak,... ere hemen daude, beraz oso polita da zure herrian korritzea.

Gainera garaipenak lortu ditut hemen, aurtengoarekin

hirugarren aldiz irabazi dut Lasarte-Oria Bai! Krosa. Beste bitan, bigarren geratu naiz eta beste batean, hirugarren.

Behobian parte hartuko duzu?

Bai. Proba honek entrenatzeko aukera ematen dizu, baina ni egunero hor nabil sasoi ez galtzeko.

Denbora luzez ikusten zara atleta moduan?

Aurten eta hurrengo urtean jarraitzea dut pentsatuta. Adina gora doa eta txipa aldatu behar dut. Beste gauza batzuk ere badaude bizitzan eta bizi behar dira. •



Txaloen artean sartu zen David Martin lasarteoriarra helmugan.



Pili Bodegas txaloak joz sartu zen helmugan igandean.

Pili Bodegas/ Emakumezkoen mailako irabazlea

“Izugarrria da herrian korritzea”

Emakumezkoen sailkapenean ere Lasarte-Oria bizi den donostiar batenzako izan zen garaipena, Pili Bodegasentzat. Ibilbidean zehar urduritasuna alde batean utzi ezinik ibili zen arren, denbora polita lortu zuen 38:09.

Nola ikusi duzu zure burua proban zehar?

Uste baino hobeto. Proba ondo atera zaidala esan dezaket, baina espero nuena baino denbora txarragoa egin dut.

Herrikoa naizenez, jende guztiak animatzen zaitu, eta presio handia izan dut. Hogeita hemezortzi minututik jaitsi nahi

banuen ere ez dut lortu. Baina ahal izan dudana egin dut.

Publikoaren babesa beraz nabaritu duzu...

Ibilbidean zehar animo oihu ugari entzun ditut, pasada bat izan da. Kasu handirik ez egiten saiatu banaiz ere, ezinezkoa egin zait. Eta azkenean urduritasuna kontrola ezinik ibili naiz. Baina oso kontent nago babesarengatik. Eta oso kontent ere hemen, herrian garaipena lortu dudalako.

Gustukoa duzu proba?

Urte asko dira parte hartzen dudala. Aurreko urtean ezin

izan nuen, baina aurten bueltatu naiz gogoz. Gainera, aurtengoarekin, bi aldiz lortu dut garaipena herriko krosean.

Beraz ibilbide aldaketarekin aurkitu zara, zer moduz?

Zirkuitu hau zailagoa da, hankak asko nekatzen dira aldapa ugari daude. Askokostatzen zait aldapetan mar-txa ona egitea, baina gero beherantz noanean denbora berreskuratzen saiatzen naiz.

Behobia-Donostia parte hartuko duzu?

Ez. Aurten Krosetan bakarrik arituko naiz. •



MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa arai pulsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Makillajeak
- Aurpegiko tratamenduak
- Beste hainbat zerbitzu
- Gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

**ALTZARIAK
ONAK ETA MERKEAK**

KROSA ANIMATUZ!

Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42. pab.
Tel./faxa: 943 360496
LASARTE-ORIA

IZARI-BI

Joxepo Artola DYAk lehendakaria

“Korrikalariak egun prestatuta datoz”

Lehen sorospen ikastaroa emango du DYAk azaroaren 8an hasita Garaikoetxea eraikinean

Joxepo Artola Gipuzkoako DYA sortu zenetik ari da erakunde honetan laguntzen eta une honetan Estatuko DYA guztien federazioaren buru da. Edonor lehen laguntzak emateko gai izateko azaroaren 8tik 26ra bitartean, ikastaroa emango dute Landaberri-Garaikoetxea ikastolan, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Egunero gerta daitezkeen ezbeharrei erantzun egokia emateko modua landuko dute, bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... 90 euro balio du matrikulak. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

Jon ALTUNA

Joxepo Artolak azaldu dizkigu DYAk urtean zehar Lasarte-Orian egiten dituen lanak Kros egunetik hasita: “batetik segurtasun aldetik lagundu eta bestetik ezbeharren bat baldin bada, lan apur bat egin. Ahal den gutxiena”.

Eta izaten al duzue lanik?

Ez, gutxi. Normalean, jendea gero eta preparatuago etortzen da proba hauetara. Proba motza da gainera, 10 kilometrotakoa. Serio hartzen dute eta antolakuntza ere oso ona da.

Garai batean arazo gehiago izaten zen beraz,...

Bai, gogoratzen naiz, Zabaletako elbarri batek, Buenos Airesko Lontzok, urtero zartada berbera hartzen zuela toki berean. Jada esaten genion, “ez, mesedez, aurtan ez!”. Berasategitik behera beti hartu zuen zartakoa, bi edo hiru urtetan segidan. Baina anekdota besterik ez da, bestela lasai ibiltzen gara.

Urtean zehar zer nolako lana egiten duzue Lasarte-Orian?

Arlo prebentiboa jorratzen dugu, hau da, zerbitu dagoenean bertan egon.

Lasarte-Oriako Udalarekin hitzarmena sinatuta dugu festa guztiak guk zaintzeko. Horre-

tara mugatzen gara, azken finean emergentziak 112 zerbitzuak erantzuten ditu, badu Osakidetza anbulantzia bat,...

Beraz, prebentzio-lana, batez ere, jende kopuru handia dagoenean anbulantzia egotea eta bestalde, heziketa-prestakuntza ere lantzen dugu. Orain Lasarte-Orian emango dugu ikastaro bat.

Nolakoa?

Lehen laguntza, Primeros Auxilios, deitutako ikastaroa da. Nik beti esaten dut hau eskolan ikastea litzatekeela onena, baina momentuz honelakorik ez dagoenez, urtean zehar horrelako bizpahiru ikastaro antolatzen ditugu. Azaroan hasiko da bat Lasarte-Orian. Izena eman nahi duenak 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar du. Komenigarria da edozeinentzat.

Zer ikasiko du ikastaroa egiten duenak?

Edozein tokitan ezbeharren bat ikusiz gero, edo etxean zerbitu gertatu, horri aurre egiteko gai izateko ikasten da.

Boluntario asko al da herrian?

Orain ez gaude Lasarte-Orian, Usurbilen lokal bat utzi ziguten eta. Bailara osokoak biltzen gara han, Behe Oriako DYA deitzen diogu. 30 bat lagun izango gara.



DYAk egiten duen lanaren berri eman digu Joxepo Artola lasarteoriatarrak.

Nolakoa da zuen lana?

Astebururo badago zerbitu, kirola, futbola, eskubaloia, ... Usurbil eta Lasarte-Orian. Aparte, istripuak Osakidetza-aren ardura direnez, soilik ez beharra oso handia denean ateratzen gara. Bigarren sare gisa gaude. Jendea mendian galtzen denean eta antzeko egoeratan ere laguntzen dugu.

Kanpora, urrutira, ere joaten zarete, baina?

Bai, nazioarteko laguntza deitzen zaio. Iranera joan ginen aurreneko aldian eta orduz geroztik Madrilako Gobernuak kontuan izaten gaitu. Azkenaldian lurrikara izan duen toki guztietara joan gara. Ez gara talde handia izaten, Estatu oso-koak, gehienez hamar bat

lagun, medikuak eta erizainak batez ere, eta logistak deitzen direnak, biziraupenaren alorrean dabilzanak, gauzak lortzeko gai direnak.

Rocio, eta beste festa handietara ere joaten zarete,...

Askok jotzen dute guregana medio dezente dauzka gulgulak. Sarri tokatzen zaigu, datorren astean ere Caceres-era goaz.

Ardurak ere badituzu DYAn...

Estatu mailako DYAk arduraduna naiz. Hiru erakundetan, Gipuzkoako buru, EuskalDYAko buru eta FEDYA, Estatuko DYA Federazioen buru naiz. Beste hiru urterako ardura daukat. Boluntarioa izateko lan nahiko gogorra da gainera. Nik nire ogibidea daukat eta hau

borondatez egiten dut. Ordu asko sartu behar izaten ditut, kontuak atera, udara honetan nire autoarekin 8.000 kilometro egin ditut beste DYA batzuek bisitatzen eta haien gauzak ezagutzen. Estatu mailakoak gu baino erakunde txikiagoak dira, gu, aldiz, betidanik ibili garenak eta guregana jotzen dute beti.

Eta egindako lan horrek ba al dauka ordainik?

Talde txiki bat sortzeko hasi nintzen ni DYAn, -Lasarte Orian erakunde sortu zenean, datorren urtean 25 urte egiten ditugu-, eta pentsa zertan bukatu dudana. Baina ordaina..., bestetan bezala, hasten zara eta gurpilak harrapatzen zaitu.

Gainera hemen hasiera gogor bat izan genuen, ez geneukan anbulantziarik, ez lokalik, ... Kuttun okindegia zenaren obradorearen azpian hasi ginen biltzen eta guardiak egiten. Tortura bat zen beti kruasana usaina zegoen eta. Orduz geroztik goizero Kruasana hartzen dut.

Garai hartan oraindik musuzapia aterako zen leihotik...

Lasarte-Orian hippyen Volkswagonek zahar batekin hasi ginen...

Kalifornia?

Ez, Kalifornia oso modernoa da. Modelo zaharrarekin. Atera kontuak. Ez genuen sirena jarri beharrik, sekulako soinua egiten zuen! Oroitzapen politikak ditut, gogorra izan zen baina azkenerako lortu genuen dirua...

DYAk 50 urte beteko ditu laster, ezta?

Bizkaian sortu zen, eta 45 urte egingo ditu: nik baino hilaibete gehiago du, kasualitatez, 1966ko martxokoa da. Gipuzkoan 1973an jarri zen. •

USURBIL
Garajea
KONPONKETAKO
TAILERRA

FIAT
LASARTE-ORIAN
SERVICIO

Zumaburu aparkalekua 18
Tel.: 943 362463 • Faxa: 943 360360
talleresusurbiladm@hotmail.com

ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIEI!

INQUIETUD
Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49
Tel.: 943 370 290

Lasarte-Oria Bail

Txikien korrikaldi handiak

Aurtengo edizioan zazpirehun haur eta gaztetxok hartu dute parte



Ilusio handiarekin abiatu ziren lasterketara txikienak, lehenengo aldiz hartzen baitzuten parte krosean.



Helmugara hurbiltzean, indarrez zegoenak esprintatu ere egiten zuen.



Zapatila galdu arren, eskuan hartu eta helmugara horrela sartu zen, profesional handien moduan.



Lasterketa egin aurretik hainbat beroketa egin zituzten zain zeudela, zain tiraturik ez izateko.



ANAIAK

JANTZI-DENDA

 **Lasarte-Oria Bai!**
KROSA ANIMATUZ !

40 URTE ZUEKIN !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



DAKARA JATETXEA

Especialitatea hostopiletan

Erraxioak

Eguneko menua
asteartetik ostiralera

Ez geratu ostegunetako
gure nazioarteko afariak
probatu gabe !!


Entsaladak

Ogitartekoak

ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIRI !



Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859





Gustura jaso zituzten dominak haurrek lasterketa bakatu eta gero.



Txintxo-txintxo laranjez jantzitakoan atzetik joan behar ziren hauek aurrera esan arte.



Bakarrik korrika utzitakoan, gaztekoek indar guztiekin ekiten zioten lasterketari.



Korrika egin aurretik, azalpeni kasu egitea komeni, ibilbidearekin zailtzek ez izateko eta ez erortzeko.



RPS 25/06

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte

aldaz
hortz klinika

Lasarte-Oria Bai!
ZORIONAK KORRIKALARIE!

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377

Ola Kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com



**NAROA
PATXI LARRANAGA
ANA IPARRAGUIRRE**

KROSA ANIMATUZ!

Lasarte-Oria Bai!



**Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737**

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Iri-goienen margo erakusketa. Jalgin, egun osoan.

PROSALUS GKeren erakusketa-
ren azken eguna da gaur. Manuel Lekuona kulture-
txean, 18:00etatik 21:00etara.

Igandea, 7

Zinea

CAMPANILLA Y EL GRAN RESCATE
haurrentzako filma. Sarrea
3,15 euro. Kulturetxean,
17:00etan. **GAZTELANIAZ**

Asteartea, 9

Ipuin-kontalaria

IPIINAREN ORDUA Pello Añor-
garen eskutik 4 eta 5 urteko
haurrentzat. Urteak errespetatu
egin behar dira eta haurrak
bakarrik egongo dira. Behin
ipuiña hasita ezin da gelatik
atera. Kulturetxeko haurren
liburutegian, 18:00etatik
aurrera, **EUSKARAZ**.

Asteazkena, 10

Diaporama

BULGARIARI buruzko diaporama
eskainiko du Naïke Zume-
tak. Jalgin, 21:30ean, **EUSKARAZ**.

Osteguna, 11

Zinea

LA CINTA BLANCA filma Okendo
Zinema Taldearen eskutik.
Sarrea, 4,20 euro. Kulture-
txean, 21:30ean, **GAZTELANIAZ**.



Oharrak

1962. urtean jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasar-
tearrentzat afari bat antolatu
dugu azaroaren 13rako,
Dana-Ona jatetxean.

Interesatuak 40 euroko
diru sarrea egin behar dute,
azaroaren 5erako, honako
kontu korronte zenbakian,
3035 0036 17 0361127028.

Argibide gehiagorako,
deitu: 646 274 376 (Bea) /659
950363 (Rexu). Anima zaitetz!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza
hauek daude jasota, diru-
zorroa, urrezko katea, zil-
arrezko zintzilakarioa, urrezko
aliantza Jose Luis grabaketa-
rekin, hiru bizikleta, Shiroko
markako motozikleta kaskoa,
Samsung markako segapotoa,
zilarrezko pulsera eta kami-



**Lasarte-Oria Dantzan egitasmoko
lehenengo saioa bihar arratsaldean**

MOMENTARI emanaldia eskainiko du Nats Nus taldeak Lasar-
te-Oria Dantzan ekimenaren barruan. Tari pertsonai bitxiak
urteetan osatu duen bilduma berezia erakutsiko du. Egiaz-
ko zorionaren bila, denbora luzea egingo du ingurua begi-
ratzen, sentitzen eta deskubritzen.

Kubo baten sei aurpegiek eta bertan bizi diren lau per-
sonaiek lagunduta, sentsazio, kolore, usain eta irudiz josi-
tako bidaia batean barrena eramango ditu ikusleak.

**BIHAR, LARUNBATA 6AN
18:00ETAN KULTURETXEAN
SARRERA, 3,15 EURO**

Ostirala, 12

Kontzertua

THE BOOGALORDS taldearen
emanaldia funk, blues....
Xpression! kultur elkarte eta
Lasarte-Oriako udaleko Gaz-
teria Sailask sinatutako hitzar-
menean barruan.
Kulturetxeko kafetegian,
20:00etan.

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen
emanaldia, (Garage, Rock).
Jalgin, 23:00etan.

Larunbata, 13

Antzerkia

AKAZIAREN JOKOA, antzerkia eta
dantza ikuskizuna Abstractoes-
fera antzerki taldearen eskutik.
Kulturetxean, 18:30ean, **EUSKA-
RAZ** eta 20:30ean **GAZTELANIAZ**.

Igandea, 14

Zinea

COMO ENTRENAR A TÚ DRAGÓN
haurrentzako filma. Sarrea
3,15 euro. Kulturetxean,
17:00etan. **GAZTELANIAZ**.

seta beltz bat.

Gauza hauek jabeak dire-
la egiaztatzen duten herritar-
rek, hilabeteko epean jaso
behar dituzte. Horietaoren
bat ikuskatzeko interesaturik
dauden pertsona guztiei eska-
tzen zaie Udaltzainen Bule-
gora hurbil daitezela,
09:00etatik 13:00etara.

Oztabide elkarte loteria

Oztabide auzo-elkarteak
Arranbide-Oztaraneko auzo-
tarrei jakin arazten die egube-
rritako loteria salgai dagoela.
19108 zenbakia da eta 3
eurotako (loteria: 2,5 euro eta
emaria: 0,5 euro) loteria par-
taidetzak dira hartu daitezke-
keenak.

Loteriako partaidetzak
Txema tabernan (Andapa
kalea, "Zumaburu") eta Covi-
ran supermerkatuan (Oztaran

enparantzan) erosi ahal izan-
go dituzue.

Bide batez, gogora arazi
nahi dizuegu administraritzaz
gastuei aurre egiteko baliabi-
de hau bakarrik daukala
elkartek.

**Bazpi txirrinda eskolaren
egoitza berria**

Bazpi txirrinda eskolak egoi-
tza berria du. Lasarte-Orian,
Atsobakar auzoan irekiko den
BIKES360 txirrinda denda
izango du egoitza berria.
Bikes360 Txirrindulariaren-
tzako Zentru Integrala Green
plaza 1, beheka 2-n dago.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 6

10:00etan, Ostadar - Oiartzun
(Kadeteen Ohorezko Maila)
Michelinen.

11:30ean, Ostadar - Beti Ona
(Partehartzte Infantilak) Michelinen.

15:30ean, Ostadar - Vasconia
(I. Erregionala) Michelinen.

17:15ean, Ostadar - Sanse
(Jubenilen Ohorezko Maila)
Michelinen.

(Gipuzkoako txapelketa eskuz banaka
alebina) Michelinen.

15:00etan, Intza - Goierrri (Eskuz
binaka III. Kadetea) Michelinen.

15:00etan, Intza - Alde Zaharra I
(Eskuz binaka II. Kadetea) Michelinen.

17:00etan, Intza - Ilunpe 2
(Eskuz binaka I. Seniorra) Michelinen.

17:00etan, Intza - Aurrerria Saiaz
(Eskuz binaka I. Kadetea) Michelinen

17:00etan, Intza - Eskoriatza
(Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.

09:30ean, Tolosa - Ostadar
(I. Kadetea) Usabal, Tolosan.

15:30ean, Tolosa - Ostadar
(I. Jubenila) Usabal, Tolosan.

16:00etan, Allerru - Ostadar
(Erregional Gorenra) Plazeta, Lezon.

Igandea 7

10:30ean, Ostadar - Tolosa
(Emakumezkoen Liga) Michelinen.

09:30ean, Ostadar - Billabona
(Alebinak) Ubitarte, Andoainen.

16:00etan, Usurbil - Texas Lasarte-
arra (I. Erregionala) Harane, Usurbilen.

15:00etan, Hernani 3 - Intza I
(Gipuzkoako txapelketa eskuz banaka
infantila) Hernanin.

16:00etan, Zestoa I - Intza 2
(Gipuzkoako txapelketa eskuz banaka
infantila) Zestoa.

JUDO

Larunbata 6

Egun osoa, LOKEko judoek Ama
Guadalupekoa Nazioarteko XIX.

Judo Txapelketan parte hartuko dute,
Hondarribia.

ATLETISMOA

Larunbata 6

10:30ean, Landaberriko alebin eta
infantil mailako atletak parte-hartzte
libreko probetan parte hartuko dute,
Anoetako belodromoan, Donostian.
17:00etan, hainbat herritarrek VI.
Antxintxika krosean parte hartuko
dute, Bergaran.

Igandea 7

11:00etan, hainbat herritarrek Ikaz-
tegiako XVI. Kross herrikoian parte
hartuko dute, Ikaztegiatan.

ERRUGBIA

Igandea 7

Goiza osoa, Beltzak-Ostadar Errugbi
eskolako gaztetxoek Gipuzkoa, Nafa-
rroa, Araba eta Errioxako eskolekin
batuko dira Iruñean kontzentrazioa
egiteko.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 7

Goiza osoa, Bazpiko txirrindulari
gazteak Neguko sariko lehengo jar-
dunaldian parte hartuko dute, Anoet-
tako belodromoan, Donostian.

PILOTA

Larunbata 6

15:00etan, Intza - Urnieta 2

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi
duzuna adierazteko atal aproposa.
Bidali edo zuzenean ekarri
TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera
desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858
zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua
txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo
bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

AZKEN MUGA TABERNA



ZORIONAK
KORRIKALARI
GUZTIEI!

Beko bidea 2 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 115808

GURE ETXEA



Nagusia 14 Lasarte-Oria
Tel.: 943 362729



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

ETXEZARRETA HARATEGIA



ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIEI!



LUIS CAR autobusak



Lasarte-Oria Bai!
KORRIKALARIEKIN
BAT EGINEZ!



- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikasteixeentzako... zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 **LASARTE-ORIA**



jalggi
KAFE-ANTZOKIA



ZORIONAK
KORRIKALARIE!

**kontzertuak
antzerkiak**

giro paregabea pintxo goxoekin

**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**



**URTEURRENA
1935-2010**



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es



**ILLARRETA
ITURGINTZA**



**ZORIONAK
PARTE HARTZEAGATIK!**



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emaila eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua